

Egun on, eta eskerrik asko agerraldi honetara etorri zareten guztioi.

**Nahikoa da.** Nahikoa dela esatera etorri gara gaur UEMAko udaletako ordezkariok.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du Euskadiko Toki Erakundeen Legearen 6.2 artikulua. Arau horrek aukera ematen die udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egiteko, betiere hizkuntza-eskubideak urratu gabe.

- Zeri buruz ari gara, beraz? **Udal barruko** dokumentuei buruz: gai-zerrendak, aktak, batzordeen irizpenak, eta abar. **Ez gara ari herritarrekiko harremani buruz.**
- Eta zer dio Toki Erakundeen Legeak? Udalek **aukera** dutela dokumentu horiek erabat euskaraz egiteko, betiere **ez badago zinegotzirik euskaraz ez dakiela alegatzen duenik.**

Eusko Legebiltzarrak 2016an onartu zuen legea, **gehiengo zabalarekin**, eta, zazpi urteren ondoren, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du euskararen erabilerarekin lotutako atal nagusietako bat. **Kolpe handia** da, bereziki udalerrri euskaldunontzat. **Inolaz ere onartu ezin dugun atzerakada.**

Epaiaren beraren larritasunaz harago, argigarriak dira kasu honek izandako bidea eta testuingurua.

- **Ultraeskuina** dago honen oinarrian: VOXen salaketa bat. Duela bi urte, VOXek EAeko Justizia Auzitegi Nagusira jo zuen, udalen hizkuntza-jarduna arautzeko 2019ko dekretuaren kontra. Alegia, **dekretua onartu eta bi urtera**, eta **EAEn batere zinegotzirik eduki gabe.**
- Bigarren urratsa EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak egin zuen, azkenaldian euskararen sustapenaren aurkako erabakiak hartu dituen auzitegiak. Dekretuari buruzko salaketa jasota, **epaileek dekretuaren oinarriaren aurka** jo zuten: Udal Legearen aurka. Inkonstituzionala izan zitekeela esanez, Madrilera bidali zuten kasua, Espainiako Auzitegi Konstituzionalera.
- Eta hirugarren pausoa auzitegi horrek eman du: **6.2 artikulua baliogabetu du**, argudiatuz urratu egiten dituela hizkuntza-eskubideak. Auzitegiak **irakurketa erabat trakestua** egin du

hizkuntza-eskubideei buruz, argudio erabat onartezinak erabiliz. Besteak beste, honako hitz hauek erabili ditu udalek euskara lehenesteari buruz: “*supremacia exorbitante*”. Argigarria.

Kasu honetan, bada gogoan izateko beste puntu bat ere. Udal Legea onartu zenean, Espainiako Estatuaren Abokatutzak auzitan jarri zituen hainbat artikulua, eta horien artean, orain baliogabetu duten 6.2 artikulua. 2017an, ordea, akordioa lortu zuten Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, legearen interpretazioari buruz, eta hor itxi zen kontua. Hori **ezerezean** geratu da orain.

Finan, epai honekin, **udalei eskumena kendu zaie beren barne-funtzionamenduan hizkuntzen erabilera arautzeko**, eta muga argi bat ezarri: administrazioan, gaztelaniaren makuluarekin soilik erabil daitekeela euskara. Hots, gaztelaniaz mugarik gabe egin daiteke; udalek euskaraz egiteko aukera izatea, zinegotzien hizkuntza-eskubideak errespetatuta, hori *supremazia* dela dio auzitegiak.

#### **Ez gara hutsetik abiatzen:**

- Ez gara hutsetik abiatzen, gogoan daukagulako duela urte batzuk UEMAko udaletan zernolako **arazoak** izan genituen gai honekin lotuta: aktak euskaraz egiteko debekuak, udalak UEMAn sartzeko trabak... Epaitegien ezpatapean egin genituen urteak. Eta **sententzia honek berriro garamatza orduko egoerara**. UEMAko udalen aurkako eraso zuzena da epaia.
- Eta ez gara hutsetik abiatzen, azkenaldian **kutsu bereko epai bat baino gehiago** jaso ditugulako. Agerikoa da: **euskara sustatzeko lege-zimendua higitzen ari dira auzitegiak**.

Egoera makur honen aurrean, ezinbestekoa da **elkarrekin bat eginda** lan egitea. Agintaldia hasi berri dugu udaletan, UEMAn biltzeko urratsa egiten ari dira udal gehiago, eta gure helburua da arduraz jokatea: udalerrri euskaldunak gara, eta erantzukizuna dugu euskararen normalizazioan urrats erabakigarriak egiteko. Bide horretan **ezinbestekoa da administrazioa ere**. UEMAk 32 urte daramatza zeregin horretan, eta **ez da onargarria hainbeste urteren ostean orain atzerantz hastea**.

Udal Legearen 6.2 artikulua emandako aukerarekin **ez da hizkuntza-eskubiderik batere urratu**. Eta are gehiago esango dugu: **hizkuntza-eskubideak UEMAko udaletan errespetatzen dira gehien**.

Mahai gainean daukagu sententzia. **Erantzuna behar du honek**:

- Erantzuna, batetik, **nahikoa dela esateko**. Oldarraldi judizial hau **eten** egin behar da. Orain aste batzuk, UEMAk bat egin zuen Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako protestarekin, eta dei hori berretsi nahi dugu gaur: **azaroaren 4ko manifestazioan izango gara**, euskararen aurkako erabaki judizial hauen aurka agertzeko eta euskara sustatzeko orube bat eskatzeko.
- Epai honek **ezinegon handia** sortu du UEMAko udaletan, eta atzera egiteko arrisku bizia daukagu. **Gure asmoa da UEMAko udalen euskalduntzean pausoak ematen jarraitzea**, azken urte luzeetan egindako bidean sakontzea. Hori da gure misioa.
- Oldarraldi honek **erantzun juridiko sendoa behar du**. Higatzen ari dira urteetan hizkuntza-politikaren zimendu izan den lege-eremua, eta garaia dugu **elkarlanean** euskara sustatzeko lege-orubea egokitzeko. Azken epaien ondoren, hasiak gara pauso batzuk ematen, baina Auzitegi Konstituzionalaren azken ebazpen honek areagotu egin du horretarako premia. **Egin dezagun bat, lor dezagun euskararen sustapenean urrats erabakigarriak egiteko lege-esparru eraberritu bat**. Badago premia, badaukagu erantzukizuna. Euskarak arnasa behar du. Bila ditzagun bideak.

Eskerrik asko, eta segi dezagun aurrera.